

ERRETIRATU PROFIL BERRIAREKIN ERLAZIONATUTAKO FAKTORE SOZIO-DEMOGRAFIKO ETA PSIKOSOZIALAK

Tesiaren egilea: Izarne Lizaso Elgarresta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta haren Garapena

Tesi-zuzendaria: Luixa Reizabal Arruabarrena eta Manuel Sanchez De Miguel

Tesiaren laburpena:

Ikerketa-tesi hau garapen psikosozialaren eremuan kokatzen da. Hain zuzen ere, hirugarren adineko garapenaren ikerketa arloaren baitan.

Orain arte, erretiroari egokitzeko prozesua azaltzeko orduan, bereziki bi teoria psikosozial erabiltzen direla aipatu da: batetik, Jardutearen teoria (Havighurst, 1961), eta bestetik, Desloturaren teoria (Cumming eta Henry, 1961). Hala ere, azken hamarkadetako aldaketa sozio-historikoak kontuan hartuta, egungo erretiratuarekin erlazionatutako ezaugarriak aldatzen ari direla azpimarratzen da; ondorioz, erretiratu profil berriaren inguruan zenbait autorek (Canes eta García, 1989; Bazo, 1992, 1996, 2000; De Zayas, 1996; Meléndez, 1996; Moen, 2000; Kim eta Moen, 2001) egindako ekarpenak ere aintzat hartu dira.

Ikuspuntu psikosozial batetik, ikerketaren helburu nagusia egun erretiratu profil berria garatzen hasi den aztertzea izan da. Horrez gain, erretiratu profil berriarekin erlazionatuta egon daitezkeen hainbat ezaugarriren arteko erlazioa aztertzea, eta, erretiratu profil berriaren ezaugarri sozio-demografikoak eta psikosozialak deskribatzea. Horretarako, analisi deskriptiboa, diferentziala eta aldagai anitzeko analisia erabili dira. Izan ere, berresteko analisi faktorialaren bidez, azpi-populazio zehatz batean konstruktuko teoriko berri baten existentzia aztertu nahi da.

Guztira, Gipuzkoa lurraldeko 161 partehartzailek osatu zuten lagina: 80 emakume (%49,7) eta 81 gizon (%50,3). Elkarrizketatuen batez besteko adina 66 urte (DT = 6,35) izan zen. Elkarrizketaren hizkuntzari dagokionez, 135 (%83,85) gaztelaniaz egin ziren, 26 (%16,15), berriz, euskaraz. Ikerlan honetan erabili den laginketa intzidentala izan da.

Planteatutako helburuei heldu ahal izateko, partehartzaile guztiek galde-sorta berdinei erantzun zieten, aldagai sozio-ekonomikoak, sozio-demografikoak, osasun psikologikoa, jarduerak eta antzeko gaien inguruan, besteak beste: SPMSQ (Pfeiffer, 1975), "Ad Hoc" elkarrizketa; Aisialdiko jardueri buruzko galde-sorta laburra; GADS (Goldberg et al.); PGC (Lawton, 1975) Autokontzeptuaren bi dimentsioak neurtzeko galdesorta; COOP-WONCA (Nelson et al.).

Emitza sozio-demografikoei dagokienez, laginaren gehiengoa diru-sarreraren batez-bestekoaren gaintik kokatzen da, erretiro-adin ofiziala baino lehen erretiratzen da, oinarrizko ikasketak ditu eta bere etxean bizi da. Emitza psiko-sozialei dagokienez, berriz, partehartzaileek osasun egoera ona dute; hau da, ez dute gaixotasun fisiko larririk eta beren osasun-egoera positiboki hautematen dute. Horrez gain, depresio eta antsietate maila baxua dute eta bizi-asebeteta sentitzen dira. Gainera, maiz izaten dituzte erlazio sozialak eta erlazio horiekin asebeteta sentitzen dira. Azkenik, autokontzeptu positibo altua eta autokontzeptu negatibo baxua adierazten dute.

Ikerketa-tesi hau menpekotasunik ez duten adineko pertsonen hurbilketarako baliagarria dela uste dugu. Etorkizuneko ikerketak, laginaren tamaina handiagoarekin, hainbat testuinguru kulturaletako erretiratuen arteko konparaketak egitera bideratu daitezke.